


FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera diseinu pertsonalizatua izango da, egindako makil bibratorioa diseinatu eta entregatzeko betekizunak dituena. Izan ere, ekoizpena esternalizatuko dugu. Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda eta denda fisikoa kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak ere. Negozio eredua funtziona dezan, enpresak egin beharreko funtsezko jarduerak dira. Funtsezko jarduera hauek ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak dira.

Gure produktuen ekoizpena esternalizatuko ditugu, hau da, kanpo fabrika bat kontratatuko dugu, gure produktuen ekoizpena egiteko. Horretarako, aukeratu dugun hornitzailearekin akordioak egingo ditugu. Kontratu argi eta zehatzak egingo ditugu, erantzukizun, epe eta kostu guztiak zehaztuko dituztenak, gure enpresaren informazio konfidentziala babesteko segurtasun-neurriak daudela ziurtatzeko.



Bezeroak dituzten arazoak konponduko ditugu webgunearen bitartez eta denda fisikoaren bitartez ere, modu digital eta fisiko batean. Hornitzaileak instalatutako sistemak akatsak badute guk hartuko dugu konpromezua eta ardura, gure bezeroekin hitz egiteko eta konpondu ahal izateko. Gure produktuaren erabilerari dagokionez arazoren bat badago, gurekin harremanetan jar daitezke gure webgunean edo telefono dei baten bidez, eta, aldi berean, gure denda fisikora etor daitezke tratatu askoz pertsonalagoa nahiago badute. Saiatuko gara gure bezeroek ahalik eta tratatu onena izan dezaten eta gure markarekiko konfiantza izan dezaten.

Webgunea plataforma batean sortuko dugu, **“SENSIBLIND”** izena izango duena, produktuaren argazkiak makila mota desberdinen prezioekin eta material etab azalduko ditugu bertan. Hainbat sekzio egingo dira horretarako, bezeroak handik erosi ahal izateko ere. Aparteko atala egingo da kexak edota itzulerapenak egiteko, dendako zenbakia jarriko dugu horretarako, makila bakoitzak dituen ezaugarriak ikusteko, promozioak jasotzeko, denda fisikoa non dagoen jakiteko etab. Makila diseinatuko duena Iria izango da, hornitzaileekin eta kontratatuko ditugun langileekin harremanetan jarriko direnak eta makilak egiteko materiala bilatuko dutenak Jone eta Iraide izango dira, eta webguneaz eta dendaz arduratuko direnak, Leizadi eta Lucia izango dira.

